

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.05.19**

Tolosako Udaletxean, 2015eko maiatzaren 19an, arratsaldeko 19:30tan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Ibai Iriarte San Vicente, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeke udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 19:30 horas del día 19 de mayo de 2015, se reúne el Ayuntamiento Pleno, en Sesión Ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia del alcalde, Ibai Iriarte San Vicente, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:

Ibai Iriarte San Vicente

Bertaratutako zinegotziak:

Lore Agirre Zipitria  
Hasier De los Rios Soraluze  
Igor Ezenarro Balda  
Pedro Manuel Etxabe Zabala  
Jon Koldobika Arsuaga Artola  
Mikel Arreseigor Astibia  
Silvana Ostiza Goikoetxea  
Ainhoa Etxeberria Aranburu

Olatz Peon Ormazabal  
Jon Aldazabal Etxeberria  
Jokin Azkue Arrastoa  
Nerea Letamendia Belloso  
Nuria Carbonell Miranda  
Miren Ezkiaga Etxezarreta  
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez  
Jose Ignacio Asensio Bazterra

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Behin behineko Kontuhartzaitza:

Paulino Alonso Eraso

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeke:

A continuación se da inicio a la sesión por la presidencia, para analizar los siguientes puntos:

1.-Ondorengo akta onartzea:

2015eko apirilaren 28ko Osoko Bilkurakoa.

1.-Aprobación de la siguiente acta:

Sesión Ordinaria de 28 de abril de 2015.

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.05.19**

- |  |   |
|--|---|
| 2.- Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:  | 2.- Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:  |
| 2015eko apirilaren 1etik 30era (2015/519-2015/672)   | Del 1 al 30 de abril de 2015 (2015/519 al 2015/672)   |
| 3.- Junta orokorraren funtzioetan: 2014ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak onartzea:                                 | 3.-En funciones de Junta General: aprobación de las cuentas del ejercicio de 2014:  |
| Tolargi, S.L.<br>Erretengibel, S.A.<br>Tolosa Lantzen, S.A.<br>Tolosa Lotzen, S.A.                                       | Cuentas de Tolargi, SL.<br>Cuentas de Erretengibel, SA.<br>Cuentas de Tolosa Lantzen, SA.<br>Cuentas de Tolosa Lotzen, SA.              |
| 4.- 2/2015 kreditu aldaketaren inguruan jasotako alegazioa onartzea eta kreditu aldaketari behin betiko onarpena ematea. | 4.-Aprobación de la alegación presentada a la modificación de créditos 2/2015 y acuerdo definitivo de aprobación del citado expediente. |
| 5.- Albiztur eta Tolosa udalerrien arteko mugaketa. Mugaketa akta onartzea.  | 5,- Aprobación del acta de deslinde de los términos municipales de Tolosa y Albiztur.   |
| 6.- Galde-erreguak   | 6.- Ruegos y preguntas.   |
| <b>1.- <u>Ondorengo akta onartzea:</u></b>   | <b>1.-<u>Aprobación de la siguiente acta:</u></b>   |
| <b>2015eko apirilaren 28ko Osoko Bilkurakoa.</b>   | <b>Sesión Ordinaria de 28 de abril de 2015.</b>   |

Izenburuan aipatutako akta, aho batez, **onartu** da.

- |   |  |
|---|--|
| <b>2.- <u>Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:</u></b> | <b>2.- <u>Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:</u></b> |
| <b>2015eko apirilaren 1etik 30era (2015/519-2015/672)</b> | <b>Del 1 al 30 de abril de 2015 (2015/519 al 2015/672)</b>             |

Alkatetzak 2015eko apirilaren 1etik 30ra bitartean (2015/519-2015/672) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.05.19**

**3.- Junta orokorraren funtzioetan: 2014ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak onartzea:**

Tolargi, S.L.  
Erretengibel, S.A.  
Tolosa Lantzen, S.A.  
Tolosa Lotzen, S.A.

**3.-En funciones de Junta General: aprobación de las cuentas del ejercicio de 2014:**

Cuentas de Tolargi, SL.  
Cuentas de Erretengibel, SA.  
Cuentas de Tolosa Lantzen, SA.  
Cuentas de Tolosa Lotzen, SA.

Sozietate hauek Junta Orokor Unibertsalaren funtzioetan eratzen dira:

Tolargi, SL.  
Erretengibel, SA.  
Tolosa Lantzen, SA.  
Tolosa Lotzen, SA.

Bakoitzean Lehendakari eta idazkari karguak izendatzen dira. Alkatea Lehendakari bezala eta Udal Idakaria sozietateen idazkari bezala.

Jarraian, Udalbatzak, aho batez,

### **ERABAKI DU:**

**Lehen.-** Onartzea aipatutako sozietateen 2014. ekitaldiko urteko kontuak, hala nola egoera balantzeak, galdu-irabazien kontu eta txostenak.

**Bigarren.-** Onartzea sozietateen emaitzen aplikazioa, agirietan agertzen diren eran.

**Hirugarren.-** Sozietate bakoitzeko administrazio kontseiluaren Lehendakaria ahalmentzea agiri guzti hauek merkataritza erregistroan aurkezteko.

**4.- 2/2015 kreditu aldaketaren inguruan jasotako alegazioa onartzea eta kreditu aldaketari behin betiko onarpena ematea.**

**4.-Aprobación de la alegación presentada a la modificación de créditos 2/2015 y acuerdo definitivo de aprobación del citado expediente.**

Maitzaren 12tik 29 bitarte, 2/2015 kreditu aldaketaren espedientea jendeurrean dago. Epe honetan, alegazio edo zuzenketa proposamen bat aurkeztu da. Honek honela dio:

“Udalbatzak, 2015eko apirilaren 28an eginiko osoko bilkuran, hasiera batez onartu zuen 2015/2 zenbakia duen kreditu aldaketarako espedientea, udalaren 2015eko aurrekontuaren barruan.

Bertan, egoera txarrean eta hutsik dauden etxebizitzak merkaturuan jartzeko programa bultzatzeko 200.000 euroko igoera onartzen da ondorengo partidan:

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.05.19**

0600.780.01.152.20 Familiei kapital dirulaguntzak. Eraikuntzen kontserbazioa.

Dena den, Gobernu batzarrak, 2015eko apirilaren 30ean egoera txarrean eta hutsik dauden etxebizitzak merkaturatzeko dirulaguntzen oinarriak onartzerakoan erabaki du etxebizitzak berrizatzeko eta egokitzeko obrak bere kontura egingo dituela.

Gobernu batzarrak hartutako erabakiak sor ditzakeen betebeharrei erantzun ahal izateko ondorengo aldaketa-zuzenketa egitea proposatzen dut 2/2015 kreditu aldaketaren espedientean:

0600.780.01.152.20 "Familiei kapital dirulaguntzak. Eraikuntzen kontserbazioa" izeneko partidari jarritako kredituak, guztira 200.000 euro, 0600.211.01.152.20 "Eraikinen mantenimendua. Eraikuntzen kontserbazioa" partida berrira aldatzea."

Jarraian, ikusirik gaiari buruz Ogasun batzordeak jaulkitako aldeko diktamena, Udalbatzak, aho batez,

### **ERABAKI DU:**

**Lehen.-** Aurkeztutako alegazio edo zuzenketa proposamena onartzea eta 0600.780.01.152.20 "Familiei kapital dirulaguntzak. Eraikuntzen kontserbazioa" izeneko partidari jarritako kredituak, guztira 200.000 euro, 0600.211.01.152.20 "Eraikinen mantenimendua. Eraikuntzen kontserbazioa" partida berrira aldatzea.

**Bigarren.-** Kreditu aldaketaren espedientea behin betiko onartutzat jotzea erakustaldirako epea amaitu bitartean ez bada beste alegaziorik aurkezten.

#### **5.- Albiztur eta Tolosa udalerrien arteko mugaketa. Mugaketa akta onartzea.**

Albiztur eta Tolosako udalek udal mugartearen mugaketa espediente hasi dute bi udalerrien arteko mugan, GI-2634 errepidearen ondoan kokatuta dagoen industria esparruari dagokionez. Horretarako, hain zuzen, bi udaletako osoko bilkurek dagozkien erabakian hartu zituzten 2014ko apirilaren 9an eta 29an, hurrenez-hurren.

Mugaketaren xedea hau da: Pasaban, SA, eta Zelatun, SA, inguruan, 1942ko aktako 18. eta 19. mugarren arteko mugalerra berriz zehaztea; eta hartara, inguru horrek azken urte hauetan izan duen hirigintzako berrantolaketak nahiz garapenak ekarri duten egungo errealitate

#### **5.- Aprobación del acta de deslinde de los términos municipales de Tolosa y Albiztur.**

Los Ayuntamientos de Albiztur y Tolosa, mediante acuerdos plenarios de fechas 9 y 29 de abril de 2014, respectivamente, acordaron iniciar el expediente de deslinde que afecta al ámbito industrial ubicado junto a la carretera GI-2634 en la colindancia de ambos términos municipales.

El deslinde tiene por objeto redeterminar la línea del término municipal entre Albiztur y Tolosa comprendida entre los mojones 18 y 19 del acta vigente de 1942 en la zona Pasaban, SA-Zelatun, SA, y adecuarla a la realidad física actual, resultado de la reordenación y el desarrollo urbanístico que ha experimentado dicha zona en

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.05.19**

fisikoari egokitzea.

Indarrean den aktan, 18. eta 19. mugarren arteko mugalerroa Salubietarreka erreka zehazten du. Baina azken urte hauetako hirigintzako berrantolaketa nahiz garapenak erreka zati bat hondietan sartzea eta desbideratzea ekarri zuten; eta, horrenbestez, muga egiteko balio zuen elementu naturala fisikoki desagertu egin zen. Horregatik, Albiztur eta Tolosa udalerrietako udalek adostu dute mugaketa eta mugarritzatze lan ahuek burutzea.

Horretarako, martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako udal mugarteak arautzen dituenak, 18 eta 19. artikuluetan aurreikusitakoa jarraiki Udal Batzordeko ordezkariak ere izendatu zituzten erabaki horietan.

Foru Administrazioako eta Funtzio Publikoko Departamentuko foru diputatuak, 2014ko irailaren 25ean, emandako aginduaren bitartez erabaki zuen aipatu mugaketarako egin beharreko prestaketa lanak hastea eta Foru Administrazioaren ordezkariak izendatzea.

2015eko apirilaren 29ko ebazpenaren bitartez, Foru Administrazio eta Funtzio Publikoko Departamentuko Araubide Juridikoko zuzendari nagusiak mugaketa gauzatzeko eguna eta ordua zehaztu zituen.

2015eko maiatzaren 4ean, ukitutako lursailen jabeei jabeei jakinari zitzaizkien mugaketa gauzatzeko eguna eta ordua.

Gaurko egunez mugaketa lanak egin eta mugaketari dagokion aktak jaso dira.

2/2003 Foru Arauaren 22. artikulua araberak, mugaketa-akta, agiri osagarri guztiak berarekin dituela, mugaketak ukitutako udalen batzarrera eraman behar da hilabete epean, batzarrak onar dezan.

Gauzak horrela, ikusirik Hirigintza Batzordeak

los últimos años.

En el acta vigente, la línea de término comprendida entre los mojones 18 y 19 viene definida por la regata Salubietarreka. La reordenación y el desarrollo urbanístico de los últimos años entubaron y desviaron un tramo de dicha regata, dando lugar a la desaparición física del elemento natural que constituía la línea divisoria. En consecuencia, los ayuntamientos de los municipios Albiztur y Tolosa han acordado realizar estas operaciones de deslinde y amojonamiento.

Con este fin, y conforme a lo establecido por los artículos 18 y 19 de la Orden Foral 2/2003, de 17 de marzo, reguladora de las demarcaciones municipales de Gipuzkoa, en dicho acuerdo también se designaron las comisiones municipales correspondientes.

La diputada foral del Departamento de Administración Foral y Función Pública, por orden de 25 de septiembre de 2014, resolvió iniciar los trabajos de preparación para el deslinde referido y designó a los representantes de la Administración Foral en las operaciones de deslinde.

Mediante resolución de 29 de abril de 2015, el Director General de Régimen Jurídico del Departamento de Administración Foral y Función Pública fijó día y hora para la realización de las operaciones de deslinde.

Con fecha 4 de mayo de 2015, se notificó a los propietarios afectados la fecha y hora para la materialización del deslinde.

Con fecha ocho de mayo se han realizado las operaciones de deslinde y se ha levantado el acta correspondiente.

Según se establece en el artículo 22 de la Orden Foral 2/2003, el acta de deslinde, con todos los documentos complementarios, ha de someterse al pleno de los Ayuntamientos afectados para su aprobación en el plazo de un mes.

Ante todo lo expuesto, visto el dictamen de la

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.05.19**

jaulkitako aldeko diktamena, Udalbatzak, aho batez, gehinego quoruma absolutuaz,

Comisión de Urbanismo, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, que supone la mayoría absoluta legal de los miembros que componen la Corporación,

### **ERABAKI DU:**

### **ACUERDA:**

**Lehena.-** Albiztur eta Tolosa udalerrien mugaketa onartzea 2015eko maiatzaren 8an egindako aktaren arabera, dagokion espedienteen jasontzen dena.

**Primero.-** Aprobar el deslinde de los términos Municipales de Albiztur y Tolosa con el contenido recogido en el Acta de fecha 8 de mayo de 2015, que obra en el expediente.

**Bigarrena.-** Onarpenaren ziurtagiria bidaltzea Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Albizturgo Udalari.

**Segundo.-** Remitir certificación del acuerdo a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Ayuntamiento de Albiztur.

### **6.- Galde-erreguak**

### **6.- Ruegos y preguntas.**

... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea: "Gaurkoa azkeneko plenoa da eta eskerrak eman nahi dizkizuet guztioi. Pasa dira lau urte, korrika pasa zaizkigunak. 28 urterekin sartu nintzen eta orain 32 ditut. Badirudi atzo bertan kargua hartzen ari ginela. Eskerrak eman nahi dizkiot udal gobernari, hor zaudetelako, hemen bueltan zaudeten 17oi, presente egon den jendeari, zuei bioi eta langile guztiei. Batzarra egin zen aurreko batean udal langileekin eta adierazi genien gure esker ona. Honek despedida bat ematen du, baina ez da. Hemen, igandeko emaitzak egonda ere, gutako askok jarraitzen dugu, beste batzuk ez dute jarraituko, baina kalean ikusiko gara. Lau urtetan konpartitu ditugu gauz asko. Nire aldetik balorazio positiboa egiten dut, pertsonalki izugarri bete nau, zuengandik ikasi dut. Besterik gabe, astelehenean ere argituko du, gertatzen dena gertatuta, baina esan beharra neukan, eskerrak eman zuoi guztioi, hemen ez daudenei ere, eta asko pozten naizela aukera eta esperientzi hau edukitzeagatik.. Eta Miren Urkola zinegotzi ohia esan pozten naizela hor ikusteaz. Eskerrik asko eta jarraituko dugula elkar ikusten!"

Besterik gabe, gaueko zortzietan bilera bukatutzat eman da, eta guztia nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

Sin más asuntos que tratar, siendo las ocho de la noche, se da por finalizada la Sesión, de todo lo cual yo, el Secretario, certifico.

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**